

# OROIMENAREN TOPOGRAFIAK

...ARGAZKILARI GARAIKIDE HANDIEN BITARTEZ

## TOPOGRAFÍAS DE LA MEMORIA

...A TRAVÉS DE UNA SELECCIÓN DE GRANDES  
FOTÓGRAFOS CONTEMPORÁNEOS

**Erakusketa Aretoa** · Sala de Exposiciones  
Planta **-2 Solairua**

**1/02/2012 > 15/04/2012**

**Prezioa** Precio: **3€** 

**Sarrerak** Entradas: Ticket Box / Infopuntua

# OROIMENAREN TOPOGRAFIAK

...ARGAZKILARI GARAIKIDE HANDIEN BITARTEZ

Alhóndiga Bilbaok antolatu du erakusketa hau, Carles Guerra komisarioak COFF Fundazioaren funtsen artean egindako hautaketan oinarrituta.

“Oroimenaren topografiak” erakusketak argazkilari eta artista bisualik nabarmenenetako batzuen erreferentziazko lanetara garamatza; hain zuzen ere, egile horiek, euren begiradari esker, argazkilaritza garaikidearen eta bideo-sorkuntzaren oinarri kontzeptualak finkatu dituzte.

Kontakizunak, ibilbide bisualak, geografia pertsonal zein publikoen gainjartzeak eta abarrek mugatzen dituzte oroimenaren eszenatokien inguruak. Hemen jasotako denbora-tartea oso laburra den arren (lan gehienak azken 30 urteotan egindakoak dira) eta bilduma jakin baten corpusaren barruan sartuta egon arren, harrigarria da erakusketa kolektibo honetan gaur egungo sorkuntza artistikoko joera eta praktika diskurtsiboetako asko aurkitzea.

## OROIMENAREN TOPOGRAFIAK

W. G. Sebald idazleak hil baino lehentxeago egin zioten elkarrizketan adierazi zuenez, benetako egitateetan oinarrituta omen zeuden eleberri askotako istorioek aurkitutako eskuizkribuak zituzten inspirazio-iturri. Aldi berean, gainera, era guztietako fikzioetan azaldutako gertaerei eusten diete. Sebald ek berak argazkiak erabili zituen bere eleberri guztietan. Jatorri zalantzagarriko irudi haiek ikusizko ziurtagiri moduan agertzen ziren, kontakizunaren errealismoa bermatzeko. Edonola ere, idazleak berak ohartarazi zuenez, irudi asko halabeharrez jarri zituen testuaren alboan. Sebalden idazkeraren ezaugarri bereizgarri ziren iraganaren pisuak eta nostalgiak kontrapuntu ironikoa zeukaten, idazleak argazkilaritzako errealismoa modu berezian ulertzen zuela kontuan hartuta. Testua eta argazkia hurbil egotean, konexioak eta lotuneak ezartzen dira zuzenean, baina horrek ez du esan nahi hurbiltasun hori aukeratzeko orduan egiazkotasun errealistaren irizpidea hartzen denik kontuan. Testua eta irudia elkarren ondoan zeuden jarrita, alboan beste bat zeukan orrialdean, modu gorabeheratsu bezain sortzailean. Eredu hori, gainera, lan-bilduma hau aurkezteko erabilitako logikan ere ezarri liteke.

Oroimenaren Topografiak COFF Fundazioko funtsetan oinarritutako erakusketa da. Iragana eremu geografikoan lekutatzea argazkilaritzaren historiako gai iraunkorrenetakoa izan bada, onartu egin behar da bideoari eta beste bitarteko batzuei begira ere oso erabakigarria izan dela espazioaren poetikekin edukitako lotunea. Era berean, berez, bilduma bera ere bada lan bakoitza modu berezian hautematean kontuan hartzen ez diren esanguren eta ideien sorkuntzarako baliabidea. Argudioaren bilbeak kontakizuna, ikusizko ibilbidea, lurralde-prospekzioa eta geografia pertsonal zein publikoen gainjarpena ditu osagai, oroimenaren elkarren segidako egoerak hedatzeko orduan. Modu berean, artelanen bildumak ere egileen eta piezen arteko talka gorabeheratsu samarra sorrarazten du. Sebalden erara, nolabait esateko.

Mark Lewisen Centrale (1999) erakusketa muntatzean oinarritzat hartutako lana da. Kaleko ikusmira eta tabernako ispiluak handiagotutako pertzepzioaren plano birtualak txertatzean, ezinezko topaketan lekukoak izateko aukera daukagu. Lan honetan, kaleko koordenatuak ez dira gertaeretara mugatzen, ikusizkoaren arlokoak baino ez diren egitateak onartzen dituztelako. Bizikidetzaren horren bidez, hain zuzen ere, gure begiradan nagusi den iraganeko lantegia omen da oroimena. Kalea bera egiazkotasunaren lekua da Street Photography-ko tradizioaren arabera, eta, horrela, birtualtasunaren mugekin limurtzen da.

Dena dela, argazkilaritzaren helburu bakarra ez da izan uneak hartzean denbora bera irudikatzea, izan ere, lanindarrak jabetu nahi izan zuten gizabanako haien denboraren kudeaketari ere erreparatu dio. Inolako jarduerarik ez garatzean, hau da, gaur egungo langabezian egotean, edo lantegitik irtetean eta aisialdiaren lantegi emankorrean sartzean, berriro ere kolokan jarri behar dira benetako, hegemoniazko eta diziplinazko eremuen eta, teoriarik, behintzat, loturarik gabeko denboraren garapen-leku diren beste eremu horien arteko mugak. Bereizketa horren anbiguitasuna ageri-agerikoa da Allan Sekularen Untitled Slide Sequence (1972) lanean. Hain zuzen ere, hautaketa hau egituratzen duten beste lanetako bat da. 25 diapositibako serie honetan, lantegia bertan behera nola uzten duten irudikatzen da, Lumièretarrek XIX. mendearen amaieran egindako filmaketetatik oroimen sozialaren topografiako leku erabilienetakoa izan ondoren.

Hala ere, beti-beti ez dugu toki ezagunetan lekuratutako eta garatutako oroimenik aurkituko. Wolfgang Tillmansen lan abstraktuetan, esaterako, egiaztatu egin ahal izango dugu argazkilaritzak berak ere espazioaren zein geografia tradizionalaren oroimen guztia bertan behera utzi duten lekuak sortzen dituela, nahiz eta izaera errealista eduki. Argazkilaritzaren berezko ondorio kimikoek ondorio estetiko iradokigarri bezain liluragarriak katalizatzen dituzte. Eguneroko pertzepzioaren argia ez den argi horren barruan, gainera, lan horiei begiratzen dietenen subjektibotasunaren ondorioz sortutako objektuak ere badaude. Objektu berri horiek ez dute ez pisurik ez formarik, batzuetan gure oroimenarekiko lotune biziagoa eta eraginkorragoa daukaten arren.

Azken batean, Tillmansen abstrakzio handi horiek argazkilaritzaren funtsezko tentsio bereizgarriena dakarkigute gogora, errealismoaren nozioarekiko lotura gatazkatsua, alegia, eta argazkilaritzaren historia ez da inoiz arazo hori konpontzeko gai izan.

\* Informazio gehiago eta lanei buruzko erreseinak, hemen: [www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

---

## Familiarteko argazkigintza analogikoaren magia > Tailerra. Familiak

Otsailaren 4an eta 5ean, eta 11n eta 12an, 11:00etatik 13:00etara  
Laborategi Aretoa. Kulturen Ataria

16 urtetik gorakoak: 8 €  5€ / 16 urtetik beherakoak: 5 €  3€

**Xavier Ribas: Argazkigintza, hiri-espazioa eta oroimena > Tailerra.** Profesionalak  
Martxoaren 2, 3 eta 4an

### Ostirala 2

17:00etatik 21:00etara > Bastida Aretoan. -2. solairua

### Larunbata 3

10:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 21:00etara > Bastida Aretoan. -2. solairua eta Medialab 2. 2. solairua. Mediateka

### Igandea 4

10:00etatik 14:00etara > Medialab 2. 2. solairua. Mediateka

30 €  20€ (prezian sartzen dira ostiraleko hitzaldia, larunbateko praktikak eta igandeko lana)

# TOPOGRAFÍAS DE LA MEMORIA

... A TRAVÉS DE UNA SELECCIÓN DE GRANDES FOTÓGRAFOS CONTEMPORÁNEOS

Alhóndiga Bilbao organiza esta exposición configurada en base a la selección hecha por el comisario Carles Guerra entre los fondos de la Fundación COFF.

Topografías de la Memoria nos acerca a obras de referencia de algunos de los más destacados fotógrafos y artistas visuales, aquellos que con su mirada, han establecido las bases conceptuales de la fotografía contemporánea y de la video-creación.

El relato, el itinerario visual, la superposición de geografías tanto personales como públicas,... delimitan los contornos de los diversos escenarios de la memoria. Pese a lo breve del período aquí recogido, en su mayoría obras producidas en los últimos 30 años, y de estar enmarcadas dentro de lo que constituye el corpus de una colección, sorprende encontrarse en esta muestra colectiva con buena parte de las tendencias y prácticas discursivas que han marcado en el devenir de la creación artística actual.

## TOPOGRAFÍAS DE LA MEMORIA

El escritor W.G. Sebald declaraba en una entrevista, poco antes de su muerte, que las historias de muchas novelas supuestamente basadas en hechos reales se inspiraban en manuscritos encontrados que, a su vez, remitían a los acontecimientos narrados en toda suerte de ficciones. El mismo Sebald empleó fotografías en todas sus novelas. Aquellas imágenes de dudoso origen aparecían a modo de certificado visual, garantizando el realismo del relato. Sin embargo, el mismo escritor se encargaba de advertir que muchas de esas imágenes habían ido a parar al lado del texto casi por accidente. El peso y la nostalgia del pasado que tanto caracterizaban la escritura de Sebald tenían un contrapunto irónico en su particular forma de entender el realismo fotográfico. La proximidad del texto y la fotografía, un acercamiento que automáticamente desencadena conexiones y vínculos, no necesariamente obedecía un criterio de veracidad realista. Texto e imagen habían ido a parar juntos, en una página al lado de otra, de forma un poco azarosa pero no menos creativa, una máxima que también podría aplicarse a la lógica con la que se presenta esta colección de obras.

“Topografías de la memoria” se configura como una exposición pensada a partir de los fondos de la Fundación COFF-TEA. Si la inscripción del pasado en el espacio geográfico ha sido uno de los temas más persistentes en la historia de la fotografía, cabe admitir que para otros medios como el video no ha sido menos decisiva su vinculación a poéticas del espacio. La colección, en sí misma, también debe ser considerada un medio que produce significados e ideas no contenidas en la apreciación singular de cada una de las obras. El relato, el itinerario visual, la prospección territorial y la superposición de geografías personales y públicas configuran una trama argumental para desplegar los sucesivos escenarios de la memoria, del mismo modo que una colección de obras de arte induce a una colisión más o menos azarosa de autores y piezas. En cierto modo, a la manera de Sebald.

“Centrale” (1999), de Mark Lewis, constituye la obra sobre la que pivota el montaje de la exposición. El ensamblaje de una vista de calle, con los planos virtuales de una percepción ampliada por el espejo del bar, nos permite ser testigos de encuentros imposibles. En esta obra, las coordenadas de la calle no se reducen a lo ocurrido, sino que admiten hechos que pertenecen exclusivamente al régimen de lo visual. A través de dicha coexistencia la memoria aparece como la fábrica de un pasado que inunda nuestra mirada. La calle, considerada por la tradición de la Street Photography el lugar de lo real, flirtea así con los límites de lo virtual.

Pero la práctica fotográfica no sólo ha representado el tiempo mediante la captura de instantes, sino que también se ha fijado en la gestión del tiempo de aquellos individuos que intentaron adueñarse de su fuerza de trabajo. La condena a la inactividad, que hoy conocemos con el término desempleo, o la salida de la fábrica y la entrada en la no menos productiva fábrica del ocio obligan a cuestionar de nuevo los límites entre espacios reales, hegemónicos y disciplinarios y esos otros tipos de espacios en los que, en teoría, acontece un tiempo sin ataduras. La ambigüedad de esta distinción se hace patente en “Untitled Slide Sequence” (1972) de Allan Sekula, otra de las obras que articulan esta selección. En esta serie de 25 diapositivas se reproduce el abandono de la fábrica que, desde las filmaciones de los Lumière a finales del siglo XIX, constituye un lugar recurrente en la topografía de la memoria social.

Pero no siempre encontraremos una memoria del espacio e inscrita en lugares reconocibles. En obras de carácter abstracto como las de Wolfgang Tillmans descubriremos que la práctica fotográfica, a pesar de su naturaleza realista, también crea lugares que han roto con toda referencia espacial y de la geografía tradicional. Los efectos químicos propios del proceso fotográfico catalizan efectos estéticos sugerentes y deslumbrantes. Dentro de esa luz, que ya no es la luz de la percepción cotidiana, también existen objetos producidos por la subjetividad de quienes miran esas obras. Esos nuevos objetos carecen de peso y de forma, aunque a veces mantienen una relación mucho más intensa y efectiva con nuestra memoria.

En última instancia, estas grandes abstracciones de Tillmans nos recuerdan la tensión más característica y esencial del medio fotográfico, una relación conflictiva con la noción de realismo que la historia de la fotografía jamás ha resuelto.

\* Más información y reseñas de las obras en: [www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

---

## La magia de la fotografía analógica en familia > Taller. Público familiar

4-5 y 11-12 de febrero / 11:00 - 13:00 h

Sala Laboratorio. Atrio de las Culturas

Precio mayores de 16 años: 8 €  5€ Precio menores de 16 años: 5 €  3€

## Xavier Ribas: Fotografía, espacio urbano y memoria > Taller. Profesionales

2, 3 y 4 de marzo

**Viernes 2**

17:00 - 21:00 h. > Sala Bastida. Planta -2

**Sábado 3**

10:00 - 14:00 h. / 17:00 - 21:00 h. > Sala Bastida. Planta -2 y Medialab 2. Planta 2. Mediateka

**Domingo 4**

10:00 - 14:00 h. > Medialab 2. Planta 2. Mediateka

Taller profesional: 30 €  20€ (incluye la charla del viernes, prácticas del sábado y trabajo del domingo)

HÓ TXARTELAK ALHÓNDIGABILBAO UNIBERTSOAREN ATEAK IREKIKO DIZKIZU. BERTAN, ESKAINTZA HANDIA GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUZU (KULTURALA, SOZIALA NAHIZ JARDUERA FISIKOEN ARLOKOA). TXARTELARI ESKER JARDUERA ETA PROGRAMAZIO GUZTIEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOKO DUZU ALDIAN-ALDIAN, ETA DESKONTU ETA ABANTAILA INTERESGARRIAK BALIATU AHAL IZANGO DITUZU.



LA TARJETA HÓ TE ABRE LAS PUERTAS AL UNIVERSO ALHÓNDIGABILBAO, DONDE PODRÁS DISFRUTAR DE UNA AMPLIA OFERTA CULTURAL, SOCIAL Y DE ACTIVIDAD FÍSICA. TE PERMITIRÁ RECIBIR PERIÓDICAMENTE INFORMACIÓN ACERCA DE TODAS LAS ACTIVIDADES Y PROGRAMACIONES ASÍ COMO DISFRUTAR DE INTERESANTES DESCUENTOS Y VENTAJAS.

GURE JARDUERETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKORIK BEHAR BADUZU ETA BAITA, HOBETO ENTZUN NAHI BADUZU ERE, ESKATU LASAI. GUZTINTZAKO GUNEA DA ALHÓNDIGABILBAO. SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PIDENOSLO. ALHÓNDIGABILBAO ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.



## ORDUTEGIA HORARIO

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA DE LUNES A JUEVES 7:00 - 23:00

OSTIRALA VIERNES 7:00 - 24:00

LARUNBATA SÁBADO 8:30 - 24:00

IGANDEA DOMINGO 8:30 - 23:00

[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

[info@alhondigabilbao.com](mailto:info@alhondigabilbao.com)

PLAZA ARRIQUIBAR, 4

944 014 014



Erakusketa Aretoa · Sala de Exposiciones · Planta -2 Solairua

Asteartetik igandera, eta jaiegun diren astelehenetan, 10:00etatik 20:00etara

De martes a domingo y lunes festivos, de 10:00 a 20:00 h.